

UHARTE BASERIKO ATAUTXI ETA AMAUTXIRENAK

1925. Uharte baserrian, eta gure aita zen beratarra Esteban Aranburu, eta ama berriz bertako alaba Teresa Alzugarai. Hiru ume izan zituzten, hiru anai ginen gu. Bi joan ziren Ameriketara ni gelditu nitzen etxekoa bezala bertan.

Gero familia, familian bizi ginen gu, aita, atautxi, amautxi, eta gero han izaten zen norbaitere, igual aman ahizpa bat edo anai bat ere. Denak han bizitzenten ginen.

Atautxi batezere, nik hamaika urte nituenean hasi zen gerra eta atuitxi zen gerrako istoriuk izugarriak erraten zituenak.

Karlista gerrako istoriuk. Bueno hamasci urtetan joan zen gure atautxi gerrara voluntario, berak erraten zuenez eta paratu zuten korreun, han izten omen zun bere serbiziua. Beratik Iparraldera Frantzira, ez dakit zein herritara, eta hola istoriak erraten zitun. Bere mandua izaten omen zun apaiza Santa Cruz. Apaiza gotti, eta apaiza Santa Cruz besterik etzun izaten, eta gero berriz hori, Zumalakarregiren eskutik heldu zen, nik uste dut erraten zula liberalaren kontrako gauzak aipatzen zuela. Liberalan kantak ere bai, kantak ere asko kantatzen zitun gerra denborakuk, binon gero, gero paratu zuten gerra hau ari zelikan Frankoren diktaduran egin zuten denbora hasi eta abido, e, abido samar, nik uste dut egin zutela teniente, hil zuten teniente zapel gorrikin ibiltzen zen, erotua ibiltzen zen, elizara gehiago joaten zen eta bere zapel gorriakin eta 50 pezeta irauzten ote zituen, ez dakit nik zenbat gehiago izaten ahal zen binon halko bat izango zen, ba, baziren gehiago ere, bai, Lesakan ala teniente apaizakin baziren.

Orain ia ke ta hasi naizen atautxigatikan harek kantatzen zitun bertso batzuk nahi nituke kantatu, gustokuk ttut nik bertso haien hareri entzuten nition:

1.- Urnietako mendian

ia hartu nuen arma

negarrez utzi nittun

aita eta ama

aita eta ama hartu nuen arma

tira eta dunba eta tira lomari

eta tira eta dunba tira beltzari.

Xarelan

75

2.- Donostiako beltzak

madarikatuak
pezeta biongatik
odola salduak
odola salduak madarikatuak.

Nik erranten bezala hamaika urte nittun ta nere atautxi zittun orduun gerra hasi zelikan, Espaňiko gerra hasi zelikan, larogeita bat, eta gero handik aintzinera hemen zapel gorria heldu zen Nabarratikan Iruñatikan eterri zen ikaragarria, eta gure etxe eskinin bi aldetik joaten ziren. Batzutan Katazpiko erreka erraten genuen aldetik. Ta bertzetan berriz Biurriko aldetian barna, bi aldetatik. Batzutan Erlaitzetik atakatzen zituzten fuerte San Anton-an eta bertzitan berriz, hori, Aiako Harritik ta Oiartzunako matxa izaten zuten. Hola ibiltzen ziren. Gero gue aita ta horik suertatzen ziren joatia konboiakin, hemendik eta konboiak jatekoa eraunten zuten herritik. Bi behi pare eraunten zituzten, bat gurdia kin eta bertzia aurrian, lauzka erraten genion, lauzka eraunteko eta gero bettikun, pues, igual, ekartzen zituzten erituak ta baita presoak ere, presoak ere ekartzen zituzten jende franko goitik-betti, kartzelera binon nik uste presoak ekartzen zituztela ez prisioneruk ez. Hori, Oiartzun ta horitik hartzen zituztenak.

Jendik hemen erratten zuten peligro haundia eramatzen zutelako zertik Iruñera ailegatu baino lehenago igual bidin hil ta egiten zituztela hola benpin gerra. Badakizu gerrak ez du gauza onik ta hala izautu gunun guk gerra.

Gero guk ez gunun goso haundirik pasatu. Egia erran behar dut zertik guk bagunun errota ta benpin opil ta esnia eta eltzaria ere izaten gunun eta gu defeinttu ginen goso haundirik pasatu gabe. Bino gero gerra hola, hiru urte barru akautu zen gerra eta gauza uainik goso haundigukin zuaien, e, goso haundia, goso hagitz haundia zagon gero lanczia ere bai, lanczia hagitz haundia, gero hasi ginen kontrabanduan eta pixko bat eta ni ere gazte gazterik espostu nintzen eta San Antongo neska batekin, Encarnacion gaur scinalamente bere zorionak dira, nere adinakua. Ta gero benpin kontrabandun familiarra sos batzuk ekarri eta hola-hola bizia aurreratu gunun.

Gero kontrabandun pixkat sos batzuk ateitzen ziren. Ur aldi hartikan, Bidasoa aldetikan hartz paketik eta eraunten genittun pues, gotti Hirumugatara eta Eskasa aldera eta Erregeko gainera eta

handikan oiartzuarrok ta horik, oiartzuarrok gehiago hartzen zituzten guri paketik. Eraunten gununak, hara, nozpatere ongi suertatzen bazen sos batzuek ateitizen genittun ta gaizki suertatzen bazen deusere, ez paketik galtzen baziren, ta behin batin hain xuxen joan ginene inunere bidirik, bidez-bide joan gabetenik dena bidik kruzatuta sartu ginene Inuatiko bordara eta alafedea Inuatiko bordan Artikutza terrenuan da, hori ta Inuatiko bordan alafedea galdu genittun hiru-lau pakete ta haraino sartu guardia zibilak, gu nunbattere sumatu zuten zerbaittere bazela muida ta behin hek sumatz gero edo alto eginez gero paketia galdua da, hori geunek bagenekegun. Badakizue erraten den bezala kontrabandua libre ez den gauza da ta benpikan gabaz ibiltzen ginene jakina eta biajeko 25-28 bat duro irauzten genittun ta pakete bakotxak ez ziren denak igualak berdinak izaten binon baziren batzuk rodamientuk erraten ziotenak hok karga haundia izaten zuten, e, hek 28-30 bat kilo ta bertzik 22 hek bulto haundiagoa zuten, ziren hagotz fardoak, lasto fardua antzako bultua zutenak bai ongi bilduak, e, eta puntilla eta ni ez naiz honako lentxiotik ibiltzen ziren, bai kubierta ta horitan ni ez naiz horitan suertu ibiltzia ta denbora hartan herrian gosc izugarria zen baserrian desfentzen zen betire hobekigo aunitz hobekigo, bai gero temporada batin izan gunun, guk ere nahiko larri egon ginela errrotak ere itxi prezintatu zituzten, nik ez dakit zenbat denbora egonentzen binon hora rato txarra izandu zen ta halare segitu gunun gauza.

Bueno, gero hogei bat urtetan, 20-21 urtetan joan nintzen soldado, ni 21 urte soldado denbora egin nittun ta 20 hilaute egin nittun soldado ta bueno soldado denboran e, hurbil somarrin egon nintzen Donostia, Alto-Orio, Urdazubi, Erratzu eta hotan ibil nitzen.

Bai, soldadutik etorri eta abudo somar ezkondu nintzen hori, andria lehen errantzen bezala San Antongo alaba bat zen eta ordun izatten zen ohitura bat ekartzeko arriua zatten zen ta arriuk ekar zittun andrik bere behi parikin. Eta benpin bizitzen jarri ginene berriz Uharte baserrian ta orain hemen bizi gara, andria ta biek, izan dittugu lau alaba eta seme bat izan ttugu, ta bueno denak holtxe bizi gara.

Laminacionin hasi nintzen eta andriri egundaino bino lan gehiago tokatu zitzaion binon halik ere dirua beti hobeki ikusten zen itxin. 21 urte Laminaciones-in eta 21 urte barru "jubilacion anticipada" hori ailetzen zitzaidan ta, pues, orain ederkia gaudezi. Orain ere itxin aritzen gara pixket binon hobekigo benpin andria aunitz atseginago ta gero laguntzailek beti itxiun battugu, ta binon orain broma batin aiztu, zahartu garelkua horixe da gauz txarra.

71 kai urte gaur
egiten dituzu bete
bainon oraindik iduritzen
gu gaudela gazte
Jaunari esker lehen bezala
elkar dugu maite
honetaxe jarrai dezagun
Jainkoak nahi duen arte.

Gazte gaztetik zure ondotik
nik hartu nuen pausua
zuri pentsatzen pasatzen nuen
ia aste osoa
oroitzen al zera non eman nizun
Iehendabiziko musua

Gaur zortziak aldin
ni egina naiz jiki
gero gosaldu zure ondoan
nik egin dut erderki
zure zorionak gaur direlako
gaur kafia ta whisky
zorionak ta urteberriion
orain bertso tan aski.

Bai, orain nere andrian zorionak dira eta hemen afaldu dugu eta gaur berexi gehixigo egin
dugulakoz hitz gehixigo atei dugu ta horregatik moldatu ttiot, Enkarnazion andriri bertso hotxek binon

battut hemen bi neska gazte, bi illoba, bai , Gixane eta Enara ta hotxekei ere bertze bertso bat bota
behar diot, hok paratu bai naute gaur ni hemen, zera saltsa hontan, hok kantatzeko paratu naute hemen.

Gaztetasuna ikusten dut nik
gaurko honetan ilun
batez ere sartuta bada
pixkabat drogaren mundun
patxadarako leku ederrak
ez ditut ikusten iñun
deseitzenzuet droga mundutik
aldatutzea urrun.

Ni Encarnacion Alzugarai naiz eta mila bederatzirehun eta hogeitabost urtin jaio nintzen., San Antongo baserri batin, itxin izena da Garaikoetxea, han jaio nintzen eta senide anitz giñen, zortzi senide, eta han bizi giñenean istorri zen Espaiñiko gerra eta sartu ziren bertze aldekuk, rojuk erraten zioten, jarri ziren Erlaiztikan kañonazukin zinpi-zanpa, zinpi-zanpa, eta handikan kañonazuk gure itxin gaintik barna nik hamar urte nitilik, hori eta Aiako Harritik ere bai metralletakin traaaa... eta baseria yotzen zinpi ta zanpa. Gu lehitikan begitu eta ikusten genitun soldadu tropel rarara atia gotti behetti burnizko txapelakin eta guk ez genittun egundaino ikusi gauza horik, izittuk eta begitu gurasokeri eta ikusten genittun negarrez ta gu daldarittan fregadera azpin barna sartuk, etziguten utzitzen atetik ateitza zertik balazuk yotzen zuten atia, leihuk eta itxc guzia eta horregatikan egondu giñen. Eta arrats batin auzoko yendia dena billu zen berrogeita hamar bat bederen eta egin gunun denak gure itxin denak gaba pasatu., moltzun eta ondoko egunin gu hartu eta amak haur txiki txikia zuna haur ttikiakin attak haur eta eramin ziguten beste baserri batera urrunera, harek zuen izena, Intzintzar, han etzen alletzen balazorik, eta han egondu giñen hamabortz egun eta izeba xaharra bagunun amautxi xaharra ere bai eta atxa atzera gure konpaintedu eta istorri zen atzera etxera, yoan zen eta itxin nolapattere egondu ziren eta gu bertze baserrin hamabortz egun eta hamabort egunen burun ekarri ziguten etxera, ya aldatu ziren Erlaiztik. Aldatu ziren kañonazuk ta ordun pzes ekarri ziguten etxera. Gu han bertze itxin giñelikan yendez itxia betetzen omen zen, soldaduz, itxia dena, guk ez ginttun hori ikusi biñon amak ta izebak ta erraten zuten dena itxia betetzen omen zen eta harrautzen zuten esnik edan eta harrautzen zutena yan eta yoaten zizkion, eta atxa ta izittuk zaudezin. Aretxe bat ordun jaio berria zen eta behia izteko fundamenturik ez zuten egiten eta utzi zuten ondun lotuta eta egin zen terriblezko txokorra zen esnia pill bat edan zulkoz.

Eta izebak berriztik, ordun gazta aunitz izatten gunun itxin eta gaztak kentzeko beldurrakin zako batin sartu eta erauntten zittun arto tartera, eta arto tartian utzi egunaz eta gabako atzera etxera ekarri, ta hala ibiltzen zen izeba gaixua czin kuidatuz bere gaztak, eta hala pasatu zen aunitz gauz. Ta hala bizittu ginien San Antonen.

Gu gero, han segitu gunun bizitzen gero ia ongi berriz.

Arditan afizio aunitz izaten gunun, ibiltzen giñen mendiz mendi Errengan barna eskiñez eskiñ, ardiakin eta hau afizio handia sartu zitzaigun, eta laguntzen genion attari aunitz, zona hartikan soldadu ta denak aldatu ziren ia ta, denak aldatu zirenin gu hasi giñen eskolin eta eskolan gabiltzanikan egun batin etorri giñen etxera eta bagunun osaba gazte bat aman anai gazte bat ta falta, gu eskolatik etorri eta : "Nun da osaba? - Osaba craminet gerrara." Erran ziguten amak eta, ta gu penatuk eta Fermín zun izena, gizajua, hara eraman zuten eta akabo, Madrideraino cramia zuten eta han hil zela etorri zen egun batin abisua, eta amautxi haren ama, Fermín haren ama, ari zen gurekin landan, txerrista itten eta abisu hora hartu z unikan erori zen zanpa lurrera, desmaituta eta attak ta amak eta hartu besotik eta eramin zuten itxera, gure amautxi Zaharra, nere amautxi zen Maria.

Gero, nola gerrak ezbaitu iñon gauz onikan hasi zen bastante gosetia, yarri zen, baiño itxin zerri handi bat hiltzen zuten. Bezerrik hasten ziren ama ta tipulak eta arrozak eta denak egipi eta gu begira egoten giñen dena gauza prestatu eta yendia biltzen zen bihamunin, eta zerri handi bat hiltzen zuten eta behin pikantxetan harekin ta abar eta odolki pilla bat eginta lukainka pilla bat egin eta paratzen zuten gauza, paratzen zuten mantentzeko. Ni, yale txar xamarra izaten nintzen, bai, beti eskapoka ibiltzen nintzen txerri hiltze egunian, gero hasten nintzen poliki poliki. Horrela izandu nintzen.

Gure atta Ameriketan ibilia zen eta ekarri zuen diru puxka bat handik eta beste baserri bat bazun erosia, eta gero behin pikantxetan herri alderago eta toki hobia zela ta aldatu giñen, bertze baserrira eta han bizitu giñen, han handitu giñen eta ia ni handikan hasi giñen mutil batzukin. Ta horrela eta gero behinpin ni handik ezkondu nintzen gazte xamar. Hogei urtetik abudo ezkondu nintzen Uharte izena daen beste baserrira eta han bizitu naiz orain arte eta hazitut neunek bertze bortz ume eta orain ere famili politakin nago, illoba batzuk ere battut eta orain bizi naiz konten, lehenago pasatu ttugu nahiko txarrak biñon orain oso ongi nago.

Bueno, orain oroitzén naizela, bertze gauza bat, gu yoaten giñen eskolara hagitz urrutitik zakotia hartu egun guziko eta goizin goiz ateri itxetik eta arratzeko bueltatzen giñen bueltan atzera, eta izatten zen han eskoltik hurbiliko baserri batin zakur handi bat, hagitz gaixtua, eh, denak ibiltzen giñen izittuk harekin eta hautsiki itten zun eta neska bateri in zion hautsiki pantorrilltik eta bertze mutiko

bateri re lasterka hasi cskapo, hartu zun galtzerditik ta bota zun lurrera eta hola ibiltzen giñen denak izittuk harekin ta gu behin do bertze gelditu giñen arboldi batin gordeta, harekin izitzen gifelakotz ta gero eguzkitik ta hola giatu, "oraintxe da denbora itxera juateko" eta handik atzera itxera yuan . Ta atta zenak erran zigun hori "Txori batek erran dit etzatela itxera alletu , ze pasatu da?" ta gu ixil ixilik gelditu giñen ,ze txorik erran ote zion? biñon hareri norbaitek erran zion biñon guk ez gunun fundamenturik hori esplikatzeko hareri, zergatik gelditzen giñen, haurrak ze fundamento eskasa izatten duen harrittuta nago.